

Goierriarra

290. zenbakia 2005eko azaroak 4



Ataungo Jentilen Etorrera

25
URTE

> ez duzu jakingo zein hautatu.

harria gresak



contacto > Zelaeta 1 > Beasain > 20.200 > T. 943 885 466 > F. 943 161 975 > harriagresak@harriagresak.com > www.harriagresak.com



ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK





ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307



Kursal
ZENTRO MEDIKUA

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN



RPS.:32/04

BERTSOTAN



Joseba Agirrezabala

Hurakanak

Azken aldian ugari dugu behin ta berriz hurakana haizea eta olatuekin etortzen da guregana denok kexatzen gara ugari azkar eta banan bana baina azkenen gu ari gara beti probokatzen dana arazo honi buelta ematen dugu sekulako lana.

Birziklatzea ta ez kutsatzea izan behar du helburu gauza honetan sartu behar dira burmuin asko eta buru orain mundua guk ez baidugu lehenago bezain seguru denok natura zikintzen dugu ta gero zenbat apuru horregatik hiltzen zaizkigu guri hainbeste aingeru.

Doinua: Mutil koxkor bat.

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea

Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

Tirada: 7.000 ale

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Ion Telleria

5. Ingurugiro txokoa: Astronomia gozatuz

8. Errezeta: Berenjenazko lasagna ajoarrieroarekin
Aholkua: Zer egin behar da konposta ona lortzeko?

9. Elkarrizketa: Jentilen Etorrerak 25 urte

14. Elkarrizketa: Isabel Imaz, odolkiaren erregina

18. Garai batean...: Sagardoa egiten lgartubeiti baserrian

22. Gazteleku: Gazte Bilgunearen aurkezpena Beasainen

24. Debaldeko iragarkiak

26. Non zer?



Goierritarra Goierriz kanpo jasotzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia: urtean 15 euro
Ipar Euskal Herria eta Europa: urtean 27 euro
Europaz kanpo: urtean 39 euro

Goierritarra diruz laguntzen duten erakundeak:

Altzaga, Arama, Gabiria, Itsasondo,
Ormaiztegi eta Zaldibiako udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia

Dirua lege den tokian eskubiderik ez



Ion Telleria

*Jabego
pribatuaren
diktadurapean
bizi gara:
pertsonek lana
esplotatzearekin
nahikoa ez eta
guri
lapurtutako
eskubideak
saltzeari ekin
diote.*

Euskal Herrian 250.000 etxe daude hutsik eta 100.000 besterik ez dira behar gure biztanlegoaren oinarriko beharra asetzeko. Eta hala ere, 180.000 eurotan saldu nahi digute 70 m²-ko etxebizitza; ustez eskaintza/eskaria merkatuaren legean oinarritzen diren argudio faltsuekin konstruktore, inmobiliaria, banketxe-buru, alkate, diputatu, lehendakari eta gainontzekoek.

Zerrendatutako guzti horien urtetako 'lana' izan da pertsonoi dagozkigun eskubideak lapurtzea. Hori gutxi balitz, lapurtu digutena atzera saldu egin nahi digute, eskubideak tomateen pare saltzen baitira gure Euskal Herrian. Baina, badirudi 'dagokiona' ordaintzen dugula etxebizitzarengatik, gainontzeko salerosten diren merkantzien antzera, ondo prestatutako tranpa baita etxebizitzarena ere.

Pentsa, zer hoberik enpresari baten-tzat familia duen langile bat baino, hipotekaren edo alokairuaren preso bizi dena, eta beraz, askorik ere kexatu ezin litekeena. Zergatik preso? Etxebizitzaren salneurria 1994tik 2002ra bitartean ia %100ean igo zelako, soldatak %30a inguru igo ziren bitartean. Familia bakoitzak diru sarreraren %68a etxebizitza eskubidea izateko bideratzen du. Pentsa gure soldaten ia hiru laurdenak adierazpen askatasuna izateko bideratu beharko bagenitu... zenbat diru balioko luke artikuluko hau idazteko eskubidea izateak, 1.000 euro?

Beraz, lapurtu diguten eskubide baten truke, lapurtu diguten soldata baten zatitik geratzen dena kendu nahi digute. Emakumeei eta gazteoi are gehiago lapurtzen digute, gainera, gure lanetik lapurtzen dutena produkzioaren beste eremuetako hutsuneak betetzeko erabiliz.

Baina, zergatik halako hutsunea irabazien eta etxebizitzaren salneurrien artean? Inguruan hainbeste diren ultraliberalek eskaintza/eskaria araua izango dute erantzun, behar ditugunak baino etxebizitza gutxiago daudela, alegia; baina, esan dugu hasieran ere, 250.000 etxe huts daude Euskal Herrian! Baina, etxe hutsak alde batera utzita ere, Espainiako Estatuan etxebizitza eskariaren %40a besterik ez da lehen etxebizitzarena; %20a bigarren etxebizitzarena da eta gainontzekoa? Aktibo inmobiliarioena.

Beraz, oinarriko beharrianen kontura negozioa egiten ari dira gutxi batzuk. Jabego pribatuaren diktadurapean bizi gara: pertsonen lana esplotatzearekin nahi-

koa ez eta guri lapurtutako eskubideak saltzeari ekin diote. Eskubide sozialen eta jabego pribatuaren arteko kontraesana da bizi duguna; kontraesana diogu bata besteari kontrajarrita direnean, halabeharrez. Eskubide sozialak ala jabego pribatua? Noren alde egin dute udalek? Alkateek? Diputatuak? Hainbat alderdi politikok? Agintzen dienaren alde, zer egin dezake legeak dirua lege den tokian?

Instituzio publikoek enpresen luzapen gisa funtzionaten dute, kudeaketa agentzia gisa. Instituzio hauen lana behar luke eskubide hauek bermatzea; baina, aspaldi ikasi dugu eskubideak ez direla ematen, hartu egiten direla baizik. Nork bermatu behar ditu eskubideak? Funtzio soziala duten kutxek? 2003an 180 milioi eurotako irabaziak izan zituen Kutxak? Irabazi hoiene oinarria hipotekak eta etxebizitzekin lotutako kredituak izan ziren, eskubide baten salerosketa irabaziak, alegia. Non dago obra soziala?

A! barkatu, hori Madrazo jaunak egiten du ala? Bai, orain berriz onartu nahi duen lurraren lege famatuarekin. Etxebizitzaren kudeaketan agente pribatuaren sarrera erreteaz gain, etxebizitza behar larriena dugunontzat inolako alternatibarik ez du eskaintzen "ezker batuko" kontseilari honek. Babes Ofizialeko Etxeentzako lurra- ren erreserba murriztu egin nahi du lege berriarekin, bestelakorik badio ere. Gaur egun lur urbanizagarrian %65a gordetzen da BOE-entzat eta %20a hiri-lurrean. Lege proiektuak dio %70ekoa izango dela lehenaren kasuan eta %30eko bigarren- gan. A! Baina, legeak eskutik dakar tranpa ere! Portzentaje horren barruan sartu ditu Madrazok prezio tasatuko etxebizitzak. Etxe hauek BOE-ek baino %30a gehiago balio dute, beraz, BOE bat lortzeko behar diren betekizunak gainditzen dituztenentzat dira. Eta, BOE bateko zozketan (kasu! Eskubideak zozketan!) iristen ez garenontzat?

Gainera, gure Goierrri eder honetan hainbat ustezko aurrerakoi ere jabego pribatu horren defendatzaile sutsu bihurtzen da: "besteok lan eginez lortu badugu etxea, hoiek zergatik izan behar dute?" Etxebizitza eskubide bezala dagokigulako eta ez diruaren truke! Eskubideen kontura aberasten direnen jarduerak zilegi bihurtzen dituzte halako diskurtsoek, lapurrari eskubideen bermatzaile deituz eta eskubideak bere esku hartzen dituenari lapur deituz.

Astronomia gozatuz


Zibilizazio guztiak begiratu dute zerura, ikusten dena bakoitzak bere era interpretatuz. Horrela sortu ziren mitologia korapilatsuak, ludiaren izaera eta hastapenei buruzko interpretazio bixiak.

Istorio guzti hauen parean, agertu ziren Eguzkiaren, Ilargiaren, planeten eta izarren mugimenduei buruzko interpretazioak.

Antzinatik konturatu ziren urtaroen aldaketa Eguzkiak zeruan zituen aldaketan eta mugimenduen arabera sortzen zela, eta ezau-pide honetan oinarriturik, egutegiak asmatzen zituzten. Egutegi hauek gero eta zehatzagoak dira. Gerora, denboraren poderioz astrolabio deritzan tresnarekin ortzian dauden planeten eta izarren posizioaz jabetu ziren, nolabaiteko kokapen bat finkatuz.

Inglaterrako Stonehenge gisako eraikinekin, Ilargi eklipseak iragarri eta egutegi anitz burutzeko egiten zituzten behategiak ziren. Antza denez zikloaren azterketarako erabiltzen zirelakoan daude.

Gaur egun eklipseak zehaztasun handiarekin noiz izango diren eta nondik ikusiko diren kalkulatzeko dute astronomoek. Horren adierazle, adibidez urriak 3an egon izan den eklipsea da (Eguzki Eklipse Anularra). Aspalditik egini-ko kalkuluei esker Vigon 10.52tan eklipsea izango ze-



la, Valladoliden 10.56tan, Madrilén 10.58tan, Alikanten 11.01tan ikusi ahalko zela jakin izan genuen. Ikusten denez prezisiozko neurketak dira, eta honela hemendik 2026 arte ez dela honelako fenomeno harri-garririk egongo ere kalkulatu dute.

Urriak 3an egon zen eklipsea ikusi baldin baduzue, nirekin bat etorriko zarete ikuskizun zoragarria denarena. Hiru astroen arteko mugimenduak erlazionatzen direnean ematen dira honelakoak. Baina eklipseak zer diren eta zein mota daude jakiteko, hona hemen azalpen bat: Eklipse bat astro batek beste astro batean egiten duen itzala besterik ez da.

Bi eklipse mota daude, bata Ilargi-eklipsea deritzana Eguzki-eklipsea bestea. Ilargi-eklipsea, Eguzkia eta Ilargiaren artean Lurra jartzen denean ematen da. Kasu honetan Lurraren itzalak Ilargia iluntzen du.

Eguzki-eklipsea berriz, Eguzkiaren eta Lurraren artean Ilargia jartzen denean

ematen dena da. Kasu honetan aldiz Ilargiak Eguzkia iluntzen du, urriaren 3an ikusi izan genuen bezala. Ilargiaren posizioa Lurrarekiko arabera, Eguzki-eklipse desberdinak izango ditugu. Ilargia bere perigeoan (Lurretik distantzi txikiena 357.000km) baldin badago Eguzkiaren zirkulu guztia estaltzen du, Eguzki eklipse osoa emanez. Baina Ilargia bere apogeoan (Lurretik distantzi maximoan, 406.000Km) baldin badago, ez du eguzki osoa estaltzen, eraztun antzeko argia gelditzen da bistan, hortik bere izena Eraztun eklipsea. Momentu horretan justu, Perlas de Baily ikusi daiteke, argi oso berezi eta polita benetan.

Eklipseak dakarten efektuak tenperatura aldaketak, presio aldaketak, haizearen, hezetasun aldaketak, argi aldaketak, dira besteak beste. Hauek eragina dute animali eta pertsonen gain. Adibide gisa, 1999ko abuztuaren 11an Hungarian izan ginenean Balatonen urtegiaren inguruan Eklipse oso bat ikusten, arratsalde beranduko argia ikusi zen (ia gaua), inguruko animaliak isildu egin ziren 2-4 minutuko tartean eta gero oilarrak abestu zuen, izugarri polita izan zen.

Besterik gabe gaueko zerua ikusi eta ikertzea gonbidatzen zaituztet. Interesatuak bazaude Aranzadi astronomi sailean asteartero elkartzen garelako jakinarazten dizuet, arratsaldeko 7etan Miramoneko Arbide Dorreetan.

Maribel Zufiaur

JAKIN BEHARREKOAK

Internet: Landarlan Ingurumen Elkarteak badu jadanik bere web orria eta bertan Goierritarra aldizkarian argitaratutako artikulua topa ditzakezu, baita elkarte burutzen ari den lanak: www.goimen.org/ingurumena_general/landarlan.htm.

Hitzaldia: "Euskadiko Zor Ekologikoa. Nork Nori zor? Gure multinazionalak Ekuadorreko Amazonian", azaroaren 10ean, arratsaldeko 7retan, Ordiziako Barrena Kultur Etxean, Ekologistak Martxan elkarte ekologistak emanda.

Telefonia mugikorraren antenek sortutako arriskuak: "Ecologistas en Acción" elkarte ekologistak, zein Valladolid, Iruñea, Girona, Madril, Leon eta Cartagenako hiritar elkarteek manifestua onartu dute eta bertan, antena horiek sortutako arriskuen inguruko ikerketa independenteak eskatzen dituzte, baita beharrezkoak diren segurtasun distantziak zein erradiazio elektromagnetikoak gutxituko dituzten neurriak.

Transgenikoez aske diren Udalerriak: beraien udalerriak transgenikoez aske izendatu dituzte hainbat udalek, EHNE eta ELA Sindikatuek egindako eskaera onartuz: Abanto-Zierbana, Amoroto, Amurrio, Arama, Arratzu, Aulesti, Ezkio-Itsaso, Izurtza, Otxandio, Zaldibia.

Eklipse bat astro batek beste astro batean egiten duen itzala da.

Agenda 21: zein pausotan gaude?

Jada bi urte dira Agenda 21 prozesua Goierri bailaran hitzartu eta *Udaltalde 21* sortu zela, eta ordutik hainbat urrats garatu dira:

1. 2.004 urte hasieran, eskualdeko udaletako politiko eta teknikariek, eskualdeko erakundeen ordezkariak (Goitur, Sasieta, Ceida, Goimen, etab.), sindikatuekin, ... bilerak egin ziren Tokiko Agenda 21ren oinarritzko kontzeptuak azaldu eta prozesuak dituen faseen berri emateko.
2. Udal bakoitzean Agenda 21eko ordezkari politiko eta tekniko arduradunak izendatu ziren.
3. Ingurune-Prospektiker kontsultorak, ingurumen, gizarte eta ekonomia arloak jasotzen dituen diagnostiko-

aren zirriborro bat egin du 18 herritan, kasu bakoitzean egungo egoera zein den ikusiz. Diagnosi honek hobetu beharreko hainbat gai jarri ditu agerian, gai hauek herritarren parte-hartzearekin herri bakoitzeko forotan aztertuz. Foro hauetan ateratako ondorioak diagnostikoaren zirriborrora erantsi eta diagnostiko definitibo osotuko da. Helburua, guztion artean 2006 urterako ekintza plan egoki bat diseinatzea da.


Zenbait udalerri fase honekin amaitu dute eta gainontzekoak hemendik abendua bitartean amaitzea aurreikusten da.

4. Hurrengo pausoa 2006 urteko urtariletik aurrera emango da: *Udalsarea 21*.

Baina zer da *Udalsarea 21*? Herri mailan iraunkortasuna sustatzea helburu duen sarea da eta udal nahiz erakunde berriak hartzeko prest dago baldin eta hiru konpromezu hauek betetzen badituzte:

- ✓ Aalborg Gutuna sinatuta eduki.
- ✓ Hainbat urtetarako Ekintza Plana diseinatu izan.
- ✓ Herritarrek parte hartzeko bideak ezarrita eduki.

Hurrengo erakundeek osatzen dute Udalsarea 21: IHOBK (Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila), Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek, EUDELe (Euskal Udalen Elkarte)



Bidea hasi besterik ez da egin, Goierriko 18 udalerriak Agenda 21 prozesuaren lehen urratsetan baitaude. Gauza asko dago oraindik egiteko.

eta, une honetan, 66 udalerri.

Batzorde Teknikoak daude lanerako, metodologia Ekintzarako Lan Taldeetan edo Ekitaldeetan oinarritzen delarik. Ekitalde hauen helburua, Batzorde Teknikoak ekintza planak aurrera ateratzeko egiten duen lana erraztea da. Beharrezkoa da udal bakoitzeko norbait ekitalde hauetara joatea.

MULTIOPTICAS

titanioa **baino**
askoz gehiago

Softitanium

Orain
120€
tan

+malgutasuna+erresistentzia+titanioa

J. Carlos Guerra 1 Tel.: 943 79 29 95 ARRASATE	Ibargarai 16 Tel.: 943 76 15 75 BERGARA	Laster zabalik Berria Kalea, 15 GROS DONOSTIA	Bidebarrieta 2 Tel.: 943 20 05 22 EIBAR	Koldo Mitxelena, 7 Tel.: 943 51 78 11 ERRENERIA	Mendibil M. G. Tel.: 943 63 99 01 IRUN	J.M. Barandiaran Enp. Tel.: 943 88 99 88 ORDIZIA	San Frantzisko 23 Tel.: 943 69 84 70 TOLOSA
---	--	--	--	--	---	---	--

Promozio honak 2005-11-01etik 2005-12-31ra bitartean iraungo du • R.D.S. Nº 190/04 I.L.G.



Lazkao-Etxe berria

Urriaren 28an jantoki berria inauguratu zuen Zaldibiako Lazkao-Etxe jatetxeak, orain arte jatetxeari itsatsita zegoen baserriaren zatia goitik behera berritu baitute. Era honetan, Lazkao-Etxeren bi aktibitateak, jatetxea eta nekazalturismoa, bereizi egin nahi izan dira, bezeroen goxotasunerako.

Tradizioa eta modernotasuna

Betiko baserria, zurezko egitura eta harrizko paretak, gaur egungo osagaiekin jantzia. Aklimatua. Tolosako Nahia Barne Arkitektura etxeak izan du dekorazioaren ardura. Baserriko altzari eta tresna zaharrak berritu eta jantokiaren apaingarri jarri dituzte.

Guztia, Eneko Azurmendi sukaldariaren lanaren ispilu: betiko sukaldaritza, gaur egungo ikutuarekin.

Taberna

Beheko pisuan taberna eta beheko suaren berotasunean goxo-goxo egoteko tokia ere txukundu dute.

6 logela

Orain arte jantokia egon den lekua, nekazalturismorako utzi dute. Beste bi logela egokituko dituzte. Sukaldea ere, bezeroen aukerarako jarriko dute. Era honetan, bainugeladun 6 logela izango dituzte bisitarien zain.

Apartamentua

Familiei begira, apartamentua ere egokitu dute Lazkao-Etxen.



LAZKAO-ETXE



- JATETXEA ASTEBURUETAN ZABALIK
- NEKAZALTURISMOA

☎ 943 88 00 44

Aiestaran erreka

ZALDIBIA

nahia.
BARNE ARKITEKTURA

Poeta Lizardi, 2
20400 Tolosa
Tel: 943 654 520 Faxa: 943 651 537
nahiainteriorismo@euskalnet.net
www.nahia.net



Junkal Elorza
Aramako jatetxea
Arama

Ajoarrieroarentzako osagaiak:

- Kilo erdi baikailao geza-tua, tiratan
- 2 tipula
- 2 patata
- 2 pote pipar, tiratan
- Oliba olioia
- Tomate saltsa

Lasagnarako osagaiak:

- Arrautza irabiatua
- Berenjena
- Gatza
- Olioia
- Irina
- Bexamela
- Gurina

Lehenik eta behin, tipulak dado itxuran moztu eta oliotan frijitzen jarri, poliki-poliki. Ondoren, baikailaoa bota eta eginda dagoenean, piperrak eta tomate saltsa gehitu. Aldi berean, patata eginak bota, tira finetan moztuta. Horrez gain, berenjena tira finetan moztu

eta irin eta arrautzetan pasatu, ondoren frijitu ahal izateko. Frijituta dauzkagunean, berenjena eta ajoarriero zati bana jarri, 3 kapa egin arte. Azkenik, bexamel eta gurin pixka bat jarri kapa horren gainera. Ondoren, labean sartu 5 minutuan, gainerretu arte.

Zer egin behar da konposta ona lortzeko?

AHOLKUA

Konposta, hondakin organikoak modu naturalean eraldatzean edo deskonposatzean sortzen den 'lur-bel-tza' da.

● **Zer behar da konposta egiteko?**

Materia organikoa, deskonposatzen dutenak lurrean bertan bizi diren organismoak dira (bakteriak, onddoak, zizareak, kakalardoak, etab). Beraz konposta lurrarekin kontaktuan egotea ezinbestekoa da. Esan dezakegu hauek materia organikoa jan, liseritu eta ondoren kaka egiten dutela. Horixe bera da konposta.

● **Orduan, beharrezkoa da ontzi bat edo lurrean egin dezakegu?**

Noski lurrean egin daitekeela. Gertatzen dena da ontziarekin hobeto kontro-

latzen direla konpostan eragiten dituzten baldintzak, esate baterako hezetasuna, tenperatura eta aireztatzea. Konpostagailuak erraztu egiten du lan hau eta 5-6 hilabeteetan 'uzta' atera dezakegu. Bestela ia urte bete beharko litzateke. Gainera ontzia edukita ez dugu arazorik izango sagu, arratoi, katu edo txakurrekin.

● **Edozein material bota daiteke?**

Esan den bezala materia organikoa behar da. Eta honen barruan guk gomendatzen dugu hasieran behintzat prozesua ondo aktibatu arte bejetelekin bakarrik lan egitea, sukaldekoak eta baratza edo berdeguneak.

● **Material 'berdeak' eta 'marroiak'.**

Hau da garrantzitsua. Konpost ona ateratzeko be-

harrezkoa da materialen nahasketa on bat edukitzea. Bi taldeetan sailkatu ditza-kegu: **Berdeak**, nitrogenoan aberatsak. Erraz konpostatzen dira. **Marroiak**, karbonoa eta estruktura eman-ko diotenak konpostari.

Lehendabiziko taldean barazki guztiak, fruituak eta belarra sartzen ditugu. Bigarrenean aldiz adarrak, hostoak, zuhaitz azalak etab.

Berdea marroia baina gehiago botatzen da baina nahasketa harro eta prozesua aireztatuta egon dadin marroiak beharrezkoak dira. Hauek gabe arazo asko izango ditugu. Materiala us-teldu, ozpin-eulien ugalketa, usai txarrak eta abar.

Gehiago jakin nahi duenak www.sasieta.net web orrian konpostari buruzko atal berezia ikus dezake.



Enrike Enparantza
Sasieta

LEIAR **LEIAR** **KRISTALDEGIA**

ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g
☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea
☎ 943 88 60 70

BEASAIN





Jentilen Etorrerak

25 urte

Gaur egun tradizioa bilakatu da Ataunen, San Martin jaietan, Jentilen Etorrera ikuskizuna: bi munduk, jentilek eta kristauak, bat egiten dute herrian. 25. urtea beteko da aurten azaroaren 13an, ataundarrek Jentilen Etorrera

irudikatuko dutena. Zilarrezko ezteiak ospatzeko, aurreko igandean, Ohitura Zaharren jaia antolatu da. Jentilen Etorrerari buruzko liburua eta DVD-a ere kaleratuko dira. 25 urteko errepasoa egin dugu, antolatzaileekin.

o s k a r b i
oinetakoak

◀ ▶ ▲ ▼ ◀▶ ▶◀ ◀◀ ▶▶

ZUZENKI
A HOLKULARITZA

 **Abokatuak**
Enpresen asesoria
eta gestioa

Tel/Faxa: 943 162 393
e.posta: zuzenki@euskalnet .net
Hiri goien, 7 LAZKAO

 **txekin**
www.txekin.net

Nolatan hasi zineten Jentilen Etorrera antolatzen?

Jon Aizpurua: Garai hartan, San Martingo festak, ekainaren 15ean izaten ziren. Festen hasiera edo bukaera potente bat nahi zen, Aiakoekin eta San Gregoriokoekin konparatuta, San Martingoak zozoak zirelako. Udaletxean, festa batzordean, festak indartzeko zer egin zitekeen aztertzen hasi ginen, jendea engantxatuko zuena... Jentilen gaia sortu zen. Jentilen burua, ongi-etorria alkateak eta apaizak egingo zuten, diskurtsoa udaletxeko balaitik, bertsolari pare bat, dantzaren bat... eta aurrera. 1981ean izan zen lehenengoa. Aurten 25. urtea da, baina 24 aldiz egin da. 1991n ez zen egin.

Joxe Bikuña: Oargiko Gazte taldean sortu zen ideia. Beste alderdi bat ere bazuen: garai hartan, berdinentzatzen ez genuenok, gutxi hitz egiten genuen elkarrekin, eta lehengo ispiluan ikusita ea ba zerbait ikasten ote genuen. Izan ere, eztabaidak gizartearen lehen, orain eta beti izan eta izango dira. Arazoa da, hori nola gaingiditu. Jentilen Etorrera honetan azaltzen da, jentilak baztertuak izan zirela kristautasuna sartu zenean eta gehiengoak kristautasuna onartu zuenean. Gaur egun beste arrazoi batzuenagatik, baina gehiengoa gutxiengoa baztertzeko du. Gaur egun beste egoera bat da baina orain dela 25 urte, nahiko egoera gogorra zegoen.

Xanti Etxeberria: Lehenengo urteetan, festak, ostiralean, herri afariarekin hasten ziren eta ondoren, goizeko ordu bata aldera, izaten zen Jentilen Etorrera.

Jon Aizpurua: hasiera hartan, botatzen zen diskurtsoa baino politagoa izaten zen, sortzen zen giroa. Menditik, antortxeekin, kaleko argi guztiak itzalduta...

Kristauak eta Jentilak

Jentilen eta kristauen arteko harremanak, ezin konponduak, elkarren beharra, ohitura aldatetako, erlijio desberdinak dira Jentilen Etorrera ikuskizunaren sustraiak.

Alde batetik, jentilak daude, mendi-goi, harpe eta kobazuloetan, beraien sinismen eta ohiturekin. Mikelats buru dutela, Torro, Atarrabi, Alarabi, Basajaun, sorginak...

Bestetik berriz, Kristauak, beheko errekonkista eta zelai haranetan, sinismen eta fede berriekin. Alkatea, erretorea, Samartin txiki...

Ikuskizunak bi zati

Bi zati eta bi eszenatoki dituzte Jentilen Etorrera ikuskizunak.

Lehenengoan, San Martingo plazan herriko ordezkariak, kristauak, Jentilei harrera egiten die. Ondoren herriko ordezkari guztiak eta Jentilbaratzatik jaitsi diren Jentilak eta Sorginak zuzien argien laguntzarekin auzoko kale nagusia zeharkatzen dute Auzoeta kiroldegiraino.

Bigarren zatian, herri antzerkia eta ikuskizuna



nahasten dira. Bertan, urtetik urtera aldatzen diren pasarte edo leiendak antzesten dira. Antzerkian kontatzen diren istorioetan, Ataunekin zerikusia duten esaundak jasotzen dira. Bigarren zati hau, 1997. urteaz geroztik, Auzoeta kiroldegian egin izan da. Xanti Etxeberriak adierazi digunez, "1997an egin zen lehenengoz kiroldegian, eguraldi txarragatik. Kaleko giroa galdu egiten da, baina segurtasuna ematen du".

Ehun bat ataundarrekin parte hartzen dute ikuskizunean. Adin guztietako ataundarrak: 4 urtetik hasi

eta 80 urtetik gorakoak. "25 urtean 500 bat lagunek hartuko zuten parte Jentilen Etorreran", diote antolatzaileek.

Mundu magikoa

Herriaren sinismen, kontu zahar eta leiendak daude ikuskizunaren oinarrian. "Txikitatik entzun eta sinistarazitako kontuak, gure gurasoengandik jasotako pasadizoak gaur egun erabat galduak dira. Mundu magiko hura desagertzeaz dago eta guk eutsi egin nahi diogu edota gutxienez behintzat, ezagutarazi gure ondorengoei", zehaztu du.

Jon Aizpurua: Hasierako ideia hori aldatzen joan da, garatzen. Bere krisialdiak izan ditu.

1991. urtean ez zen egin.

Zergatik?

Joxe Bikuña: 1991n ez zen egin, berotasun handiegirik ez zegoelako. Askotan bere garaian emandako bela-

rondoko batek gehiago baliatu du, sermoi pedagogiko batek baino. Urte hartan ez zen egin baina handik aurrera bai.

Jon Aizpurua: 1992an indar eta gogo gehiagorekin heldu zitzaion. 1992an, Jentilen Etorreraren barruan antzerkia egiten hasi ginen. Ordura arte, Alkatearen eta apaizaren ongi-etorri diskurtsoa eta Mikelatsen erantzuna urtero errepikatzen ziren. Hortik aurrera askoz gehiago ez zen. 1992an antzerki testuekin hasi ginen,

Ataunen inoiz jasota dauden leienda gehienak, era batera edo bestera, azaldu dira Jentilen Etorreran.

Ataungo ipuin eta leiendak egokituz, historia berriak sortuz... Urtero-urtero gauza ezberdinak egiten aritu gara. Urte hartan, azarora pasatu ziren festak.

Egitarauan ere aldaketa izan zuen beraz urte hartan.

Xanti Etxeberria: negua zen eta gauean ezin zen egin. Iluntzean egin behar zen eta betan jarri genuen, kanpotik jendea etortzeko garai egokia.

Gaur egun gainera, ez da antzespina bakarrik, guk ikuskizun kutsua ere eman nahi izan diogu. Herrian geneuzkan zein elementu sartzen joan gara: abesbatza, dantzariak, txalapartariak.

San Martin jaietako ekitaldirik nagusia bilakatu da...

Jon Aizpurua: Beno, Ataungo bihurtu da. Egia da San Martingo festen barruan egiten dela baina Ataungo ekitaldia da. Guk behintzat hala ikusten dugu.

Pertsonaiak gehitzen joan zarete urtero.

Jon Aizpurua: Hasieran pertsonaia hauek ziren: Mikelats, jentilen burua, beti Joxe Bikuña; apaiza eta alkatea. San Martin Txiki eta sorginak ere bai. Baina hauek ez zuten hitz egiten. 1992an, antzerkian, pertsonaia guztiak hitz egiten jarri genituen.

Urtero errepikatu diren pertsonak, Joxe Bikuña Mikelats eta Joxe Arrondo San Martin Txiki izan dira.

Xanti Etxeberria: Urte batean huts egin du Joxe Bikuñak. Hamabost egun lehenago gaixotu eta bere ordezkoa aurkitu genuen. Kloniko bat aurkitu genuen eta inork ez zuen antzeman.

Joxe Bikuña: Asko irabaziko luke, pertsonaiak aldatuta.

Jon Aizpurua: Ez nago horrekin zurekin Joxe. Momentu bat iritsi da, pertso-

Liburua, dvd-a eta Junkeraren kantua

25. edizioak merezi duela eta, liburua eta dvd-a kaleratuko ditu Ataungo Udalak. Liburua, gaur, azaroak 4, aurkeztuko da herriarren aurrean, Herri Antzokian, 20:00etan. Jon Aizpurua tajutu du liburua.

Jentilen Etorreraren historia eta era berean, Ataungo ipuin eta mitoak biltzen dira. Pertsonaia mitologikoak aipatzen dira, elkarrizketak pertsonaje nagusiei eta argazkiak. Ataun Aztergai bekaren barruan argitaratu du liburua.

Dvd-a

Oroigarritarako balioko duen Dvd-a ere kaleratuko dute, urte bukaerarako. Irudi hautatuak bilduko dira. 1982, 1984, 1986 eta 1992tik aurrerakoak. "Urtez urte zein eboluzio izan duen ikusiko da. Jende asko ere azalduko da. DVD-a beranduagoa aterako da, aurtengo irudiak sartu nahi ditugulako", diote.

Kepa Junkeraren kantua

Beste berrikuntza bat ere badute aurten ataundarrek: Kepa Junkeraren abesti bat,

naiak pertsonarekin lotuta daudela. San Martin Txiki beti Joxe Arrondorekin lotzen dugu. Mikelats, beti Joxerekin. Tortorekin ere berdin.

Tomas Erauskin: Zenbait umek ni Torto bezala eza gutzen naute.


Jon Aizpurua: Aurten esaterako, pertsonaia berria sartu dugu: Maru. Maumendi mendian bizi omen ziren, kopetan bi adarreko pertsonak.

Gidoi guztiak zuk, Jon Aizpurua egin dituzu. Gi-

doia urtero berria izaten al da?

Jon Aizpurua: Bai. Momentu honetan esan dezakegu, Ataunen inoiz jasota dauden leienda gehienak, era batera edo bestera, azaldu direla Jentilen Etorreran. Aurten, denen laburbilduma egingo dugu. Bi histori nagusi izango dira: bata, San Martin Txikik garia lortu zueneko, eta bestea, azken jentilak azkeneko izarra ikusi eta Kixmi azaldu zenekoa...

Liburuan bildu al dituzue



Jon Aizpurua, Jentilen Etorrerako gidoigileak, idatzi du liburua.

okasiorako konposatutakoa. Sorginek dantza egiteko musika izango da. "Ataunen eman zuen kontzertuaren ondotik, eskaintza egin zitzaion, Jentilen Etorrerako konposatuko ote zuen. Oso pozik hartu zuen", azpimarratu dute antolatzaileek.

gidoiak?

Jon Aizpurua: Guzti-guztiak ez, aukeraketa bat egin da. Joxemielek jasotako ipuina bera eta moldatutako gidoia jarri ditugu.

Gero eta zailagoa al da gidoia idaztea?

Jon Aizpurua: Ikuskizunarekin gertatzen den bezala, gero eta zailagoa. Gero eta jakitun gehiago dago inguruan... erridikulua egingo ote duzun beldur izaten zara. Baina jolas moduan daukagu hartuta, hori bai, tradizioa berreskuratzeko balio duelako garrantzia du, baina badakigu, zientifikoki aztertuz gero, San Martin Txiki eta Alkatea, ez direla inoiz elkarrekin egon. Guk, garai bateko mundua sortu dugu.

Zein euskara mota erabiltzen duzue?

Xanti Etxeberria: Antzez-

San Martingo festen barruan egiten da, baina Ataungo ekitaldia da.

Bitxikeriak

Hainbeste urteren eta istorioren tartean, hainbat eta hainbat bitxikeria gertatu izan da. Batzuk, behintzat, gogora ekarri dizkigute:

Lehenengoa, Tortori gertatua: “2003ko uda, ikaragarri beroa izan zen. Jentil gauzak, etxeko trasteroan edukitzen ditut. Trasteroa, teilatupean dago, leku itxia da, bentilaziorik ez duena. Goiz hartan joan nintzen trasteak hartzera eta Santi Etxeberriak egindako begi bakarreko latexeko kareta, erabat deseginda zegoen. Hitzik gabe gelditu nintzen. Santirena joan eta emaztearen mediaren bat hartu... eta hala pasatu zen”.

Bigarrena ere, Tortori gertatua: “Tortok, urte batean, oso garrantzitsua zen eratzuna jantzi behar zuen, istorio guztia eratzunaren inguruan baizihoan. Tomasek eratzuna etxean ahaztu zuen. Etxera joan eta eratzuna falta. Eratzunik gabe ateratzekoa zen. Bitartean, bere emazteak, eratzuna hartu eta plazara eramana zuen. Hura erotzen eta gu ere bai”.

Umeei begira, animaliak ateratzea gustatzen zaie antolatzaileei, baina ustekabe bat baino gehiago eman izan die. “Urte batean, usoak atera genituen. Istorioan, apustu bat zegoen tartean. Sorginaren papera egiten duena, eskuan usoa zuela atera behar zen, eta hain urduri zegoen, lepoa estutu, eta ito egin zuela usoa. Eskerrak, beste uso bat bagenuen”.

Beste behin, txakurra izan zen protagonista: “behin txakur bat bagenuen ikuskizunean, entsaioan, tiroekin-eta izutu zitzaigun, eta txakurrik gabe gelditu ginen. Ez zen gehiago itzuli”.



terakoan, guk Ataungo eus-kara erabiltzen dugu eta narrratzaileak, euskara batuan hitz egiten du, 1993tik hona.

Zein izaten da momenturik magikoena?

Xanti Etxeberria: Egiten den momentuan bakarrik biltzen gara denok elkarrekin. Momentu magikoena horixe izaten da, haur bat

negarrez, jendea parrez... entzutun baduzu, badakizu lortu duzula. Ikustea gauzak funtzionatu egiten dutela, historia jendeari iristen zaiola.

Tomas Erauskin: Entsaio garaian askotan erreta ibiltzen gara, ez garelako inoiz ere denok elkartzen. Beste urte batean ere atera da! pentsatzen dugu.




Ohitura zaharren Jaia, Ataunen, azaroaren 6an

25 urteren ondoren, Jentilen Etorrera tradizio bilakatu den ekitaldia da. Urteurren horren aitzakian, beste tradizio bat sortu nahi dute ataundarrek: Ohitura Zaharren jaia. Azaroaren 6an izango da Ohitura Zaharren jaia, goizeko 10,30etatik eguerdiko 2etara, Ataun San Martingo plazaren inguruan.

Herritarrak parte hartu eta elkartu, eta aldi berean, ohitura zaharrak belaunaldi berriei erakutsi nahi dizkie antolatzaileek.

Garai bateko edo galtze-ar dauden lanbideak eta usadioak ikusteko aukera izango da. Tarteetan, honako hauek: txerri hiltzea, hermentari lana eta perratzea, odolki egitea, laian, artilea eta galtzerdiak egiten, josten makinan (hankarekin eta elektrikoa), bolilloak, gantxiloak, bordatzen, saskiak egiten, sega pikan, segan, artoa eta babarrunak aletzen, gaztainak erretzen, taloak egiten, egur taila, sagardoa egiten, gazta egiten, sendabelarren erakusketa, barazki eta frutu erakusketak, trikitalariak... Bertsolariak ere arituko dira: bat-batekoan Iban Urdangarin eta Aitzol Barandiaran; eta ber-



Arg.: Arkaitz Apalategi.

tso-jarrietan, Sabino Auzmendi.

Mezatarak garai bateko eran joango dira 10 bat emakume, mantaliña, misala, errosarioa, aulkia eskuan... dituztela.

Eguerdiko 12etan, Anjelusa erreztatzekotan ere badira. Ordu berean, haurrek, garai bateko jolasetan parte hartzeko aukera izango dute.

Garai bateko janzkera

Jaia girotzeko, orbela kalean botako dute. Horrekin batera, herritarrei dei berezia ere luzatu die antolatzaileek: orain 100 urte inguruko jantziekin ateratzea.

Emakumezkoak, amona jantzian edo eta orain 100 urte inguruko jantzekien. Gizonezkoak, praka ilun edo maonezkoekin eta alkandorekin. Umeak ere berdin. Bizikletan, astoan... kalera joanez gero ere gustura leudeke antolatzaileak.

Gaur egun hainbat ekitalditan karpak jartzea modan badago ere, ataundarrek, espazio naturalak aprobetxatuko dituzte, "karpak eta horrelakoak jarrita garai bateko kutsua galduko bailuke", zehaztu dute.

Joxe Bikuña antolatzaileetarikoa batek azpimarratu duenez, "lehenengo urtea da eta ikusi egin beharko

Garai bateko edo galtze-ar dauden lanbideak eta usadioak ikusteko aukera izango da.

da jendeak onartzen duen ala ez. Hortik aurrera, hurrengorako hobetu daiteke. Otsagin egin dute aurten bigarren aldiz eta zoragarria izan da. Lixiba egiten..."

Momentuz behintzat, harrera ona izan omen du jaiak, jende askok eman baitu izena.

Bazkaria

Azaroaren 6a aprobetxatuko dute, Jentilen Etorreren zilarrezko ezteiak ospatzeko. Gure artean ohi den bezala, mahaiaren bueltan elkartuko dira, 25 urteotan era batera edo bestera Jentilen Etorreran parte hartu duten herritarrak.

Bitor jotetxean izango da bazkaria, azaroaren 6an, 14:30ean. 13 euro kostatuko da.

- ✕ Jabekideen komunitatea osatzea
- ✕ Komunitateen kontabilitatea
- ✕ Akten idazketa
- ✕ Aurrekontuen eskaera
- ✕ Aholkularitza legala
- ✕ 24 orduko asistentzia
- ✕ e.a.



Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486




ANZIZAR, S. A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**



Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**
www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48



Isabel Imaz, odolkiaren erregina:

*"Gaztetan
odolkiaren usainak
nazka ematen
zidan, baina orain
egunetik egunera
gustorago egiten
ditut"*

Bihar, azaroak 5, jokatu da Beasaingo odolki txapelketa. Olano harategiko Isabel Imazek belarri bat plazan izango du, 2005eko odolkiaren erregea edo

erregina nor den entzuteko, seigarrenaren bila joango baita aurtien ere. Odolkiaren denboraldia bete-betean dagoela, beasaindarrak odolkiaren kontuak kontatu dizkigu.



Mendizabal, C.B.
ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)
659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk. **ZALDIBIA**



ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA


www.txekin.net

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 2 behe
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble

ajentzia

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA



Beasaingo odolki lehiaketa

bost aldiz irabazia da:

1987, 1989, 1999, 2002 eta 2004an.

Noiz hasten duzue odolki denboraldia? Noiz izaten da garairik indartsuena?

Iraila erdialdean. Dena den, aurtan beranduxeago hasi gara, harategian egindako obragatik. Eguberriak bitartean izaten da fuertena. Denboraldian hots gehiago ateratzen da eta kanpotik ere etortzen da jendea. Eguberrietatik aurrera gelditu egiten salmenta, itxura denez jendea tripa beteta gelditzen da eta.

Zenbat kilo egiten dituzu urtean?

Urte batetik bestera aldatu egiten da. Iaz irabazi egin genuen eta ikaragarri saldu genuen. Irabazten denean gehixeago saltzen da. Baina askotan irabazita diferentzia ez da horrenbeste nabaritzen. Lehenengo bostetan gelditzea oso ondo dago eta prestigioa mantendu egiten da.

Beasaingo txapelketak izena dauka, beraz.

Odolki Kofradia oso ondo ari da lanean. Beste herri batzuk kendu nahi diote izen hori Beasaini baina Beasainek betitik izan du ospe hau. Argiñano hasi zen odolkiaren izena zabaltzen. Propaganda handia egin digu. Beasainen betitik oso odolki ona egin izan da. Harakin oso onak egon dira. Ordiziak eta Zaldibiak mondeju txuriarekin daukan bezalaxe, Beasainek odolkiarekin izan du fama. Goierriko odolkia izena jarri

nahi zuten baina gu Beasain gara. Ordiziarekin borrokan aritu gara, baina gure izena da. Guk atera genuen hotsa eta jarraitu egiten dugu.

Beasainek zergatik dauka bada ospe hori?

Ez dakit. Beasainen mondeju txuria oso gutxi saltzen da, Ordizian eta Zaldibian, berriz, asko. Nik uste ohitura dela.

Kanpotik jende asko etortzen al da Beasaina odolkiak erostera?

Bai, asko. Bergara eta Eibar aldetik jende asko etortzen da. Hangoa baino hobea dela esaten dute. Donostiarako errekadista daukagu. Madril, Sevilla eta Tenerifera ere bidaltzen ditugu.

Txapelketarako odolki bereziak egiten al dituzu?

Betikoak. Askotan hasi izan naiz bereziak egingo ditudalakoan, baina okerrago ateratzen dira.

Nork erakutsi zizun odolkiak egiten?

Ni baserritarra naiz eta beti ikusi izan dut etxean odolkia egiten. Ez zitzaidan gustatzen, ni odolkia egiten hasi nintzen arte. Nik kanpoan lan egiten nuen eta odolkia egiteko garaian, eta txerria hitzen zutenean, nik alde egiten nuen beti. Usainik ez zitzaidan gustatzen. Inoiz ez nuen odolkiak egiten lagundu.

Ezkondu nintzenean, harategian odolkiak egiten hasi nintzen eta nire senarraren amak, Maria Luisa

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

**Goierritarrentzako
mediku zerbitzu espezializatuak**

Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60

Faxa: 943 08 55 61

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN

SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

**Mota guztietako
gida-baimenak**

Aita Urdaneta

ORDIZIA

☎ 943 88 72 76



MUJKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

Segurolak, laguntzen zidan, harekin ikasi nuen. Baina beti joaten da ikasten eta orain oso gustura egiten ditut. Lehen usainak nazka ematen zidan baina orain egunetik egunera gustorago egiten ditut.

Asko aldatu al da odolkoa egiteko modua?

Gaur egun, lehen baino jenero hobea erabiltzen dugu. Hemengo porrua erabiltzen dut. Gantza ere, labeldun txerriarena. Perrexila Ugartemendikoa. Jenero ona erabili behar da.

Espezie asko botatzaren aldekoa al zara?

Oso espezie gutxi botatzen diet. Oreganoa, piper gorria, gatz... Hemen herrietako bide ertzetako oreganoak hauts asko izaten du, eta niri mendiko oreganoa gustatzen zait. Biltzaileak dauzkat. Zerain alde horretan asko dago.

Jendeari nolako odolkoa gustatzen zaio?

Jendeari odolki bizi samarra gustatzen zaio. Haurrak dauden lekuan, ez hain biziak. Beraz, bietatik egiten ditut. Koadrilak, tabernak... biziagoak nahigo dituzte. Ume askori gustatzen zaie odolkoa. Nik ez nuen uste, neroni ez zitzaidan gustatzen eta.



Etxeko haragia

Duela 43 urte ireki zuen Olano harategia Andres Olanok, Isabel Imazen senarrak. Alargun gelditu eta berak eraman izan du harategiaren ardura, bi semeekin batera. Beasaindarraren esanetan, "harategi batek jenero berezi eta on samarra ez badauka, ez dauka zereginik supermerkatu handiekin". Ideia horretatik abiatuta, duela urte batzuetatik hona, etxean bertan hazitako ganaduaren haragia saltzen dute. "Etxeko haragia daukagu. Edozeinek ikus dezake ganadua non daukagun eta zer jaten duten. Oso kontrolatua daukagu dena. Etxeko txekorra, esne asko edandakoa izaten da. Lan asko da, baina ondo jaten jarraitu nahi badugu, hala egin behar da. Bitartekarienezat diru asko behar izaten da, horrek garestitzen du produktua. Gauza onak kostu gehiago dauka", zehaztu du. Behi eroen garaian, "guk hobetu egin genuen salmenta. Normalean, behi eroen haragia ez da harategi txikitik aurkitu, merkatal zentro handietan baizik", gai eratu du Isabel Imazek.

Garai berriak

Garai batean baserri guztietan egiten ziren txerri hiltzeak eta odolkiak. "Baserriko produktua izan da odolkoa baina kaletarrek beti gustura jaten zuten. Txerria hiltzen zen garaian, banatu egiten ziren odolkiak, trukean beste zerbait jasotzeko. Odolkiak ordainetan", dio Isabel Imazek. "Lehen garai batean, etxean porrua zen garaian, kanpotik odola eraman eta odolkiak egiten ziren etxe askotan", azpimarratu du.

Garaiak eta gizartea aldatzen ari direla eta, obradore berria jarri dute Olano harategian, eta sistema berrian ere gordetzen dituzte odolkiak: "egosita saltzen ditugu, hutsan enbasatuta. Bi minutuan mikrouhin labean eduki eta eginda dago. Jende asko animatzen da horretara".

Gaur egun odolkiari ere beste erabilera bat ematen zaio sukaldaritzan. Horren adibide, iaz, Beasaingo Udalak, argitaratu zuen odolki errezeta liburua. "Kroketak egin izan ditut, piper beteak... Madrilgo jatetxe batean, odolki nahaskia edo rebueltoa saltzen dute", zehaztu du.



GERTU
ENPRESA AHOLKULARIAK - ABOKATUAK

San Inazio, 5 - 20200 BEASAIN
Tel: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33
gertu@gertuasesores.com



RENAULT
LAZKAO GARAJEA

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxa: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO

GOIERRIKO ODOLKIGILEAK



Arg.: Xabier Mujika

Azaroak 5 Odolki txapelketa Beasainen



Nekazaritza eta
Arrantza Sailak
baimendua

- Barazki eta arroz-odolkiak
- Mondejuak

Bereziak harategi eta
jatekxetarako

Anduaga Industrialdea, 9
Zumalakarregi Plaza, z/g

☎ 943 72 17 10
☎ 943 88 26 59

EZKIO-ITSASO
ORMAIZTEGI

Elosgi 52,
Lazkao
943 881 717

Kutixi
Etxeko Sukaldaritza

Olando
Harategia



Odolki eta
etxeko haragitan
berezitasuna

Andra Mari, 3 ☎ 943 88 07 78 **BEASAIN**



Iñaki Zubeldia
Harategia Urdaitegia



Bertako haragiak,
odolki, lukainka,
saltxitxa eta aurrez
prestatutako
janariak

K. Nagusia, 14 ☎ 943 88 27 47 **BEASAIN**



J. MUJIKA
Harategia

Nafarroa Etorb. 31 ☎ 943 88 04 88
BEASAIN

Nagusia, 16 ☎ 943 88 18 32
Gipuzkoa, z/g ☎ 943 88 08 78
Etxea ☎ 943 16 06 02

ORDIZIA

IÑAKI KANPOS
AUTOZERBITZUA



- ✗ Bertako haragia
- ✗ Odolki, txorizo
eta tripaki
bereziak



Zumalakarregi, 4 ☎ 943 88 28 27 **ORMAIZTEGI**



**2000. urteko
odolki
txapeldun
Beasain eta
Ordizian**

Kale Nagusia, 32 ☎ 943 88 18 91 **ORDIZIA**



Duela 500 urteko sagardoa egiteko sistema


Ezkio-Itsasoko Igartubeitiko baserria, sagardoa egiteko lantoki bezala eraiki zuten duela 500 urte. Dolarea zen etxearen ardatz nagusia. Ondorengo

argazkietan, duela 500 urte, sagardoa nola egiten zuten laburbilduko dugu. Lehenengo pausoan, pats-askan, ur irakina botatzen da, zura handitu eta zirrikituak ixteko.



Iturgintza - Berogintza - Gasa

Carrefour
merkatalgunea
Tel. - faxa:
943 88 19 87
676 178 488
OLABERRIA



KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN

© 943 02 73 58
Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5 BEASAIN

Olagi
Sagardotegia
Jatetxea

Urte guztian
zabalik
Eguneroko menua
Karta
Sagardotegiko meua

© 943 88 77 26 ALTZAGA



Ikasteknik
psikopedagogia zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain

Ikasketa oztupoak
Diagnosia eta tratamendua

• Test-ak, Frogak • Tailerrak



Sagarra bezperatik uretan jartzen da beratzen, bigundu eta herdoil dadin. Ondoren, pisoiarekin, sagarra joaz, sagarra txikitzen da. Sagar puska multzo horrek patsa du izena. Guztia, pila batean jartzen da, eta forma horri ere patsa deitzen zaio. Sagar txikitu pila bakoitza 8 aldiz zanpatuko da.

Aurretik dena den, sagarra askatu, zabaldu eta bere forma-
ra etorritakoan, berriz ere patsa egingo da. 2.000 kilo sagra-
rretik, 1.200 litro muztio ateratzen da. Sagarra gorri-gorri
gelditzen da, oxidatua dagoelako. Bertatik sagardo lodia,
koloretsua, zaporeduna eta bizi puntuarekin ateratzen da.




Patsaren gainean hodiak jartzen dira. Aldenik alde, errete-
nak ditu, sagarra zanpatzean gora joaten den muztioak bil-
tzeko. Hortik aurrera, patsaren egitura jartzen hasiko gara,
patsoholak izeneko oholak jarritz.

Patsoholekin lauki oso bat osatuko da eta bere gainean, gil-
tzak jarri. Piramide forma osatzen da, puntu bateko inda-
rra, lauki osora eraman eta patsa guztia zanpatzeko. Guzti-
ra, 2.500 kilo inguru jarriko zaizkio gainean.




Behin egitura jarrita, hamar metroko habearen indarra zabaldu beharko da. Beheko solairuan dagoen dolareko ardatza bihurtitu behar da, goi solairuko habearen kontrapi-sua zintzilik geratu arte. Horrela, nahikoa indar lortzen da.




Erdialdeko zutabeetan dauden ziriak ipiniz edo kenduz, prentsatzeko habearen altura neurtzen da. Dolare gotiko da Igartubeiti baserrikoa. Zutikako bi zutabeak dira dolarearen oinarri.



Zutikako habeek, goitik beherainoko zuloak dituzte, ziriak jarrit eta kenduz, prentsatzeko habea orekatuko da.



Egurrezko karga jartzearekin batera, muztioa ateratzen hasten da. Zuloan, iragazkiaren edo filtroaren funtzioa beteko duen landarea jartzen da. Zulo horretatik, muztioa, beheko pisuan dagoen tinara eroriko da.



Tinatik, kupelera. Muztioa oxigenoarekin kontaktuan, irakiten hasiko da. Lehenengo irakinaldia, kupela irekita egingo da eta zikinkeria aparretan aterako da. Ondoren, kupela itxi eta oxigenorik gabeko irakinaldia hasiko da. Hortxe dugu sagardoa.



**DAGOENEO ABIAN DA #97. PROIEKTUA:
BEASAINGO ETA LEGAZPIKO
KIROL EREMUAK HANDITZEA.**

Inbertsioa: 2.100.000 euro

Igeriketa. Waterpolo. Futbola. Paddle. Tenisa.
Saskibaloi. Eskubaloi...kirol guztia Golerri eta
Urola Garai osorako. Proiektutik haratago dagoen
proiektua. Aparteko Inbertsio Planaren
baruan aurrera doan errealitatea da. Lazkao
eta Zumarragako zaharren egoitza berriak,
Ordizlako Sueskola, edo Beasain-Durango
errepidea bezalaxe... Egunetik egunera errealitate
bihurtzen ari zaren proiektuak dira.

Aparteko Inbertsio Plana.

Golerrin ere bai.
Urola Garai ere bai.

Aparteko Inbertsio
Plana 2004-2007



Plan extraordinario
de Inversiones 2004-2007



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa


Gazte Bilgunearen aurkezpena, Beasainen, azaroaren 4an

Gazte Bilgunea, Euskal Herrian hainbat eremutan lanean dabilen hainbat gazte osaturiko taldea da. Alderdi politikoetako, sindikatu etako, instituzio etako, herri mugimendu etako zein gazte mugimendu etako ki-deek osatzen dute Gazte Bilgunea. "Gazte Bilgunea gazterien baitan eztabaida prozesu bat irekitzeko eta Euskal Herriak gazte mailan behar duen instituzioa eraikitzen laguntzeko sortu zen. Euskal Herriko Gazte Kontseilua eraiki nahi dugu, Euskal Herri osoko gazteen hitza eta erabakia bideratzeko tresna gisa. Gazteria bilduko duen eta gazteok ditugun gabeziei egokitu-tako Kontseilu ireki, zabal eta parte hartzailea antolatzea da gure helburua".

Honetarako, Gazte Bilguneak prozesu bat abiatu du. Laburbilduz, ondorengo puntuok proposatzen dituzte:

● **Euskal gazterien eskubideen karta eratzea**, "gure eskubideen bermea lortu bidean, gazte guztion arteko gogoeten ondotik eratzen den tresna izan behar du".

● **Euskal gazterien diagnosia eremu**



Urretxum egin zen Gazte Bilgunearen aurkezpena. Argazkia: Maite Quevedo

egitea, "aurrean ditugun gabeziei aterabidea bilatu bidean".

● **Euskal gazterien partehartzea eta ekarpenak lortu**. "gure hitza eta erabakia errespetatua izan

dadin, gazterien hitza eta erabakia bideratzeko guneak sortzea ezinbestekoa zaigu. Gazteriak bizi duen egoera, dituen kezkak eta erronkak bideratzeko tresna egonkor eta erabilgarriak

Gazte Bilguneak,
gazteek eztabaidatzeko, proposamenak
egiteko eta erabakiak hartzeko gune
nagusia izatea du helburu

sortu behar ditugu".

● **Euskal Gazterien I. Biltzarra**. "Ikasturteari amaiera emateko, eta egin-dako lanaren onespina eta babesa eskatzeko asmoz, Biltzarra deituko genuke. Bertan, gazterien hurrengo urteetarako lehentasunen plana adostu eta Euskal Herriko Gazte Kontseilua-ren sorrera gorpuztuko genuke".

● **Euskal Herriko Gazte Kontseilua abiatzea**. "Ez dugu inor edo ezer ordezkatzeko asmorik; aitzitik, gure herrian dugun gabezi handi bati aterabidea eman nahi diogu: euskal gazteriak gogoetak egiteko, eztabaidatzeko, proposamenak egiteko, antolatze-ko eta biltzeko dugun eskubideari erantzun nahi dion prozesua abiatu nahi dugu", diote Gazte Bilguneakoei.

Eskubideen Karta eta diagnosiak osatuak dituzte dagoeneko Gazte Bilguneakoei, baina gazterien partehartzea eta ekarpenak lortu nahi dituzte. Honela, Euskal Herri osoan aurkezpenak egiten ari dira. Goierriren kasuan, Beasainen egingo dute aurkezpena, gaur, azaroak 4, arratsaldeko 7etan, Gazte Lekuan.

PSIKOLOGI KLINIKOA

ARGÍ
 Jose Ramon Pato Prieto
 Psikologian lizentziatua
 Elkargokide zenbakia: E-2644
 RPS: 420/01
AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen,
 umeen,
 bikoteen eta
 sexologi
 tratamenduak

ikaskide
 irakaskuntza zerbitzuak
 Joan Iturralde, 5
 solairuartera
 943 160 120
 Beasain

ikaskide@ikaskide.net
 www.ikaskide.net

INGELERA
 ✓ Azterketa ofizialak
 ✓ Cambridge, Trinity College
 ✓ Talde txikiak
 ✓ Esperientzia zabala


biok
 zerbitzuak
 Tel 943 88 44 00
 Faxa 943 80 51 27
 www.biokzerbitzuak.com
 Ordizia Goierri, 12

kudeaketa
 fiskala
 kontablea
 merkatala
 laborala


Arkupe
 ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAK
 J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA

Doan BERRIArekin

PiRRItx eta PORROTx

familien karta-jokoa



Azaroaren 5etik aurrera



ETXEBIZITZAK

salgai

Idiazabalen, kale nagusian, etxebizitza salgai. Guztiz berritzeko. 630949866.

errentan eman

Zegaman etxe polita alokatzen da, terrazarekin. 686964725.

Ataunen, etxebizitza alokatzen da. 943180481.

konpartitzeko

Beasainen, pisua konpartitzeko pertsona arduratsua behar da. 17:30etik aurrera deitu. 677413476.

LURSAILAK

salgai

Pinua landatutako lursailak salgai Goierriin. 666809914.

GARAJEAK

errentan eman

Garaje itxia alokatzen da Ordiziako erdialdean. 635700556.

BESTELAKOAK

salgai

Ontzi garbigailu eta hozkailu industrialak salgai, altzairu herdogaitzekoak. 943163011.

Ura berotzeko gasezko berogailua salgai. Egoera onean. 670422051.

Mendiko txirrindua salgai. Merkea. Egoera onean. Sandra. 600895984.

Kristaldun ate bikoitza salgai. 645008188.

Eskiatzeko botak salgai. Berri-berriak eta oso egoera onean. Salomon markakoak, beltzak.

erosi

Bizikleta estatikoa erosiko nuke, bigarren eskukoa. 943161945.

ANIMALIAK

oparitzeko

Katakumeak, oso mantsoak eta politikak, oparitzen dira. 678449564.

Ardi txakurra oparitzen da, urtebetekoa. 943885102.

Katu txikiak, politikak eta mantsotuak opari. 943889496.

Pastor belga arrazako txakurkumeak oparitzen dira. 943027514.

salgai

14 ardi saltzen dira, beren kupoarekin. 943885102.

2 pottoka salgai, emeak. 680768079.

50 latxa ardi salgai, beraien kupoekin. 943801833.

5 ahuntz eta akerra salgai. 630621153.

Spagneul breton arrazako txakurkumeak salgai. Gurasoak oso onak ehizean. 667302980 - 676971795.

Debaldeko iragarkiak:

943 88 96 12

goierritarra@topagunea.com

IBAI ONDO

ARROZTEGIA

Altzariak neurritza

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47
Antzizar-Katea, 5 **BEASAIN**

Logela, egongela
eta sukaldeko
altzari nahiz
osagarrietan
aukera paregabea



Osinalde s.l.

DESGUAZEA

Tel.: 943 16 22 07 car.osinalde@terra.es
943 88 70 48 Igara industrialdea, z/g
Faxa: 943 88 28 01 ORMAIZTEGI

Autowag



☎ 943 888 254
☎ 943 888 266
Faxa: 943 888 105
N-1 errepidea, 419 Km
BEASAIN



kutxa

gizarte ekintza

IBILGAILUAK

salgai

Audi A3 1.9 tdi salgai. Beltza, 2002koa, egoera ezin hobean. Mantenimendu liburua. 15.000 euro. 607512311.

Volkswagen Golf gt tdi salgai. 110 zaldi, 5 ate, 1997koa. 5.400 euro. 605709904.

Yamaha Aedo x-r motorra salgai. 49 cc. Urdina. Oso egoera onean. 943880147.

Mobilette Campera motorra salgai. Egoera onean. 943084179.

LANA

eskaerak

Idiazabalen etxeko lanak egiteko emakume bat behar da. 20:00etatik 22:00etara deitu. 652729883.

Trailerreko gidaria behar da. C+E gida-baimenarekin. 626109468.

Muntatzailea behar da sukaldeko altzariak montatzeko. 649426712.

Akademiak irakasleak behar ditu ordezkapenentarako eta lan-poltsarako, gai desberdinetan adituak (ingelera, injeniaritza, matematika, kimika, fisika eta abar). Zuen kurrikulua helbide honetara bidal ditzaitezue: 61 posta kutxa, 20240 Ordizia.

Azoketan goizez lan egiteko pertsona bat behar da. Euskalduna eta gidatzeko baimenarekin. 667711040.

Beasaingo taberna batean zerbitzaria behar da. 685782717.

eskaintzak

Paperak dituen gaztea edozein lanetan aritzeko prest dago. 617426339.

Irakasle tituluduna eta psikopedagogian lizentziatua eskaintzen da klase partikularrak emateko, 6-12 urte bitarteko umeei Ataunen edo inguruetan. 650132272.

Emakumea prest dago adineko pertsonak gauzez zaintzeko, Ordizia eta Beasainen. Esperientziaduna. 616889923.

48 urteko emakume euskalduna prest dago arratsalde, adineko pertsonak zaintzeko. 679973107.

Emakume bat prest dago elkarre edota tabernaren bat garbitzeko. 679881809.

Ekuatoriar mutil gaztea lan bila dabil. Dokumentuekin. 609953719.

Goierritarra

Debaldeko iragarkiak:

943 88 96 12

goierritarra@topagunea.com



Egurrezko lehioak, kontraleihoak, ateak eta eskailerak neurria.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU

ikaskide

irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
solairuartea
943 160 120
Beasain
ikaskide@ikaskide.net
www.ikaskide.net

ESKOLA LAGUNTZA

- ✓ Gai eta maila guztiak
- ✓ Talde txikiak

INFORMATIKA

- ✓ Ikastaro berriak
- ✓ Ordenadore bat ikasleko

UNIBERTSITATE MAILA

- ✓ Injinaritza
- ✓ Enpresaritza
- ✓ ...



izal

IMAZ eta CONTRERAS

PINTURA eta PAPERGINTZA

☎ 943 187 049
☎ 943 187 045

Ondramuño baserria

IDIAZABAL



LOGOS

MOBILIARIO INTEGRAL

Goierrin egindako sukaldeak



Beasain

Udazken kulturalaren azken txanpa

Azaroak 4, ostirala:

18:30etan: Erraldoi eta kilikien irteera txistulariek lagunduta.

22:30etan: Agerre Teatroaren 'Neska politak, artasoro alaiak' antzezlan, Usurbe Antzokian. Sarrera: 8 euro.

Azaroak 5, larunbata:

10:00etan: Bertako elikagaien azoka berezia, Loinazko San Martin plazan.

12:00etan: Odolki-dastatzea eta lehiaketa, Loinazko San Martin plazan.

19:00etan: Dantza-jaialdia, Aurtzaka dantza taldearekin, Loinazko San Martin plazan.

Azaroak 6, igandea:

08:00etan: Murumendira eta Garina mendi-irteera 'finalistaren eguna' ospatzeko.

17:30etan: Eskulan-tailerra.

19:00etan: Dantzaki dantza-eskolako irakasleen eta ikasleen erakustaldia, Loinazko San Martin plazan.




Beasain

Belaunaldien arteko topaketa

Adineko pertsonen eta haurren arteko harremanak bultzatzeko helburuarekin, Beasaingo Urbialde plazan, azaroaren 4an, arratsaldeko 5etatik 7etara, VI. Belaunaldien arteko topaketa izango da. Jokoak eta txokolate jana prestatu dute arratsalde pasarako. Bikoteka elkartuko dira parte hartzaileak: adineko pertsona batek eta haur batek osatutako bikotea izango da. Beasaingo Erretiratuen etxeak antolatu eta Beasaingo Udalak eta La Caixa Fundazioak lagundutako topaketa izaten da.

Mari Karmen Bustundui, Erretiratuen Etxeko kideak esan digunez, aitona-amonek, garai batean egiten zituzten jokoak erakusten dizkie haurrei. Tokoa, oi-lo itsuan, sokatiran... Dantzan ere erakusten saiatzen dira. Alderantziz ere gertatzen omen da: haurren artean hain estimatuak diren joko elektronikoen funtzionamentua aitona-amonei erakusten saiatzen baitira. Hori bai, ekitaldirik estimatuena, txokolate beroarena izaten da Bustunduiaren esanetan.

Urteik urtera jende gehiagok parte hartzen duen ekitaldia da belaunaldien arteko topaketa.



INSTALATZAILE OFIZIALA



IAZA

LLAZAPLUS ZENTROA

T 943 880 243 Antzizar auzoa z/g - Beasain



NAFARROA ETOR, 17
T/F 943 88 94 82

Chipie

Confetti

Levi's


Ikks



ttipi - ttapa

umeen arropa denda

Santa Maria, 35 ORDIZIA tel.: 943 886 901

autonomoentzako eta mikroenpresetarako
doako **mintegiak**

Bilatu eta aurkitu: Nola bilatu Interneten?

Goierri
azaroak 22
ORDIZIA
Goierri Lanbide Eskola

Ordutegia:
18:00-20:00

Informazio-iturri itzela da Internet, baina nola bilatzen da **enpresarako erabilgarri izan daitekeen informazioa?** Bezeroei, hornitzaileei, eskariei eta eskaintzei buruzko informazioa, gure lehiakideen jarduerari buruzkoak, dauden **dirulaguntzak** eta horiei buruzko informazioa... ezagutzea gure **negoziorako mesedegarri izan daiteke.**

Sustatzaileak:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



euskadi
informazio garrantzitsua orri la sociedad de la información



e-gipuzkoa



Antolatzailea:



Miramon
Enpresa Digitala

Informatzeko eta izena emateko:
943 747 314
www.miramondigital.com
[cursos@miramondigital.com](mailto: cursos@miramondigital.com)




Urtebete egin dugu gure zentru berrian, behar guztiak asetzeko erabat horniturik dagoena; elbarrituentzako guztiz egokitutako instalakuntzetik hasi eta zure ongizatea lortzeko behar diren guztiak zaindu ditugularik, **Teknologi aurreratuenak zure esku** jarriz, gure lan talde espezializatuak norbanako tratamendu egokienaz landuko ditu zure beharrak, bai **implantologi**, **estetika** edota **zirugi mailan**.

Erabateko hartz klinika integratua.

SMC

**ERABATEKO
HARTZ
KLINIKA
INTEGRATUA**
GURE INSTALAKUNTZAK ELBARRITUENTZAK
 ERABAT EGOKITUAK DAUDE, KLINIKAK SAN
 INAZIO KALE BERTARA EMATEN DUELARIK



Teknologia, profesionaltasuna eta arreta, zerbizu bakar batean bateratuz, giro goxo batean, zerbizurik hurbilena eskeiniz, dentistarekiko zure ikuspegia aldatuko dugu.

